

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Arte Hezkuntza eta bere Didaktika	1411223	2024-2025
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
Lehen Hezkuntza Gradua	3.	1.
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizko Formakuntza	6	Euskara eta Gaztelera
Irakaslea(k)		
Pello Ulazia Ibarzabal eta Jorge Txana Barón		

Justifikazioa

Arte Hezkuntza eta bere Didaktika ikasgaiak Lehen Hezkuntzako curriculumean Arte Hezkuntzak duen garrantzia azpimarratzea du helburu; aldi berean, etorkizunean irakasle izango direnak talde lanean aritzeko eta pentsamentu kritikoa garatzeko gaitasunetan trebatzea bilatzen du, horretarako beharrezkoak diren baliabide eta metodologia didaktikoak eskainiz.

Artea eta komunikazio artistikoari dagozkien kontzeptuak, egungo praktika artistikoetan baliagarriak diren alderdi didaktikoak eta artearen balio sozialak ezagutu eta barneratzea sustatuko du, irudia, musika eta artea sorkuntza kultural gisa ulertuz.

Etorkizunean irakasle izango direnei adierazpen, sorkuntza eta komunikaziorako beharrezkoak izango dituzten baliabide metodologikoak eskainiko dizkie, hizkuntza plastiko, bisual eta musikalari lotuta dauden proiektu pedagogikoak ardatz izanik.

Aurrebaldintzak

Ikasgai hau egin ahal izateko aurrez aldeko baldintzarik ez dago.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

TALDE LANA

2. maila: Taldearen sendotze eta garapenean ekarpena egin, komunikazioa, zereginen banaketa orekatua, barne giroa eta kohesioa sustatuz.

Berriazko gaitasunak

- Hizkuntza plastiko, bisual eta musikalari lotuta dauden proiektu pedagogikoak taldean gauzatu, arteak eskaintzen duen diziplinarako ikuspegiaz baliatuz.
- Lantaldean arituz, arteak norbanakakoaren formakuntzan zein formakuntza kultural eta sozialean egiten duen ekarpena identifikatu, eta hezkuntza estetikoak eskaintzen dituen ezagutza zein esperientziak balioztatu, bai gure eguneroko testuinguruaz aztertzeko eta baita adierazpen kultural zein artistikoak kritikoki balioztatu zein gozatzeko ere.
- Adierazpen artistiko anitzak modu kritikoa eta taldean aztertu, hauek txertatuta dauden testuinguru sozio-kulturala aintzat izanik.
- Musika eta erritmoaren hizkuntzan oinarritutako eta erritmo zelula eta diktaketen aurkikuntzarako talde proiektuak diseinatu, Lehen Hezkuntzako etapari dagozkion erabilera estrategien bidez.
- Musika eta erritmoaren hizkuntzan oinarritutako eta zelula melodikoen aurkikuntzarako talde proiektuak diseinatu, Lehen Hezkuntzako etapari dagozkion erabilera estrategien bidez.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudatoki si' Helburuen presentzia ikasgaiari



Genero-berdintasuna | Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neskatok guztiak ahaldunduz (KOG).

- Genero-berdintasuna eta genero aniztasunaren errealitatea ulertu (Arte Hezkuntzak eskaintzen dituen bide estetikoak ezagutu eta bide hezitzaile hauek pertsonen subjektibotasunaren garapenerako daukaten ahalmena ezagutu). Jendartea (gizartea) pertsona ezberdinek osatzen dugula kusi eta aniztasuna, irudian, adierazpenetan, formetan... aberastasuna dela ulertu.



Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak iraunkortasunez kudeatzea, desertifikazioari aurka egitea eta lurren degradazioa eta biodibertsitate-galera geldiaraztea (KOG).

- Arte Hezkuntzaren bitartez kontzientzia ekologikoa garatu (teknika artistiko ezberdinak jorratuz naturarekin erlazionatzen gaituen jarduerak burutu).



Hiri eta komunitate iraunkorrak | Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, sendoak eta iraunkorrak izatea lortzea (KOG).

- Arte Hezkuntzaren bitartez gizakiaren oinarriko behar fisiko, sozial eta psikologikoak ulertu (teknika artistiko ezberdinak jorratuz komunitate iraunkor batekin erlazionatzen gaituen jarduera plastikoak burutu).

Edukiak

1. UNITATEA – ARTEAREN BIDEZKO FORMAKUNTZA KULTURALA, PERTSONALA ETA SOZIALA
 1. Artearen funtzio soziala: praktikoa, estetikoa, sinbolikoa, komunikatiboa eta kritikoa.
 2. Hizkuntza bisualak: ingurua ulertu, komunikatu eta estetikoki hautemateko tresnak (argazkigintza, zinema, bideoa, komunikazio grafikoa eta arte plastikoak orokorrean).
2. UNITATEA – LEHEN HEZKUNTZARA BIDERATUTAKO BALIABIDE PLASTIKOAK. Fisikotasunaren garrantzia zentzumeneren garapenean. Buztinaren plastizitate eta materialtasunaren lanketa.
 1. Buztina I (Materia, forma eta egitura)
 2. Buztina II (Irudia, ehundura eta kromatismoa)
3. UNITATEA – ARTEA, ILUSTRAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Liburu ilustratuaren (ipuin, komiki...) ahalmen komunikatibo eta pedagogikoa. Modu sentikor eta enpatiko batetik. gure gizartearen aniztasuna eta problematikaz jabetzen laguntzen duten baliabideen lanketa.
 1. Narrazioa eta Irudia (Gaia eta motibazioa; testua eta irudien arteko erlazioa)
 2. Ipuinaren diseinua (Euskarriak, formatoak, materialak eta teknikak)
4. UNITATEA – HIZKUNTZA BISUALA ETA ESTETIKA POETIKOA. Begiradaren hezkuntza eta inguruko estetikaren pertzepzioa. Argazki irudiaren kontakizun ahalmena.
 1. Poesia bisuala (irudia sortu)
 2. Foto-erreportajea (irudia harrapatu - paisaia baten hiru begirada -)

5. UNITATEA - LEHEN HEZKUNTZARA BIDERATUTAKO PROIEKTU PEDAGOGIKO BATEN DISEINUA

1. Hezkuntza Artistikoa eskola- sisteman eta curriculumean
2. Proiektuetan oinarritutako lan metodologiaren ezaugarriak: Hizkuntza Artistikoa ardatz.
3. Eremu ez formalak: museoak, interpretazio zentroak...
4. *Artea ikasbide* (Guggenheim museoaren programa eta beste batzuk)
5. Unitate Didaktikoak diseinatzeko orientabideak eta hauen egituraren proposamena. Eredu didaktikoak eta erreferente curriculuarrak:
 - *Txurruka(n) Plaza(n).Hezkuntza*
 - *Arteak eta Herritarrak* Mintegia

6. UNITATEA – ESPRESIOA ETA AURKIKUNTZA

1. Hizkuntza Musikala alorrean landutako formula erritmikoen errepasoa (lehen maila).
2. Espresioan eragina duten termino eta ikurren identifikazio, ezagutza eta interpretazioa.
3. Jadanik landutako formula erritmikoen praktikoa korporalak.
4. Partituren oinarritzko analisia.
5. Orkestra partiturak.

7. UNITATEA – ZEHAZTUGABEKO DOINUA DUTEN ESKOLAKO PERKUSIO-INSTRUMENTUAK

1. Bakoitzaren aurkezpena.
2. Teknika instrumentala.
3. Aukerak.
4. Jatorria.

8. UNITATEA – TALDE INSTRUMENTALAREN PRAKTIKAK

1. Hainbat instrumenturekin praktika monoritmikoak.
2. Hainbat instrumenturekin praktika poliritmikoak.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Estrategia anitzez baliatuko da ikasgai hau:

- Behaketa erreflexiboa egitera bideratutako jarduerak.
- Kontzeptualizaziora bideratutako jarduerak.
- Esperientziaren kontzeptualizazioa sustatzen duten jarduerak.

- Lanketa teorikoa praktikarekin lotzera bideratuta dauden esperimentazio jarduera aktiboak.
- Ebaluazio jarduerak.

Ikasgaiari dagozkion 6 ECTSak aintzat izanik, ikasgaiak ezarrita dituen helburuak lortu ahal izateko eta prozesuaren jarraipen egokia egin ahal izateko 150 orduko dedikazioa izango du. Ordu hauek era honetan banatuko dira:

Ikasgelan lan presentziala: 65 ordu

- Irakaslearen azalpena
- Dokumentazioaren irakurketa eta analisia
- Materialak sortzeko manipulazio jarduerak
- Ebaluazio jarduerak
- Auto-ebaluazioaren datu bilketak
- Azterketa

Ikasgela kanpoko lana: 85 ordu

- Dokumentazioaren irakurketa eta analisia
- Informazio bilaketa
- Baliabideen elaborazioa
- jardueren elaborazioa eta praktika
- Jarduera analitikoak
- Ikasketa prozesua jasotzen duen Egunerokoa

Ebaluazioa

Ebaluazioa ondorengo irizpideetan oinarrituko da:

- Oinarrizko gaitasunak (%10). Ebaluazio jarraia izango du, Ikasketaren prozesua jasotzen duen Egunerokoaren bitartez.
- Gaitasun espezifikoak (%90). Ebaluazio honetan aintzat izango diren baliabideak: Analogia taula (%15), Zelula erritmikoak (%10), Diktaketa erritmikoak (%5), Zelula melodikoak (%10), Baliabide Plastikoak (%10), Artea eta ilustrazioa (%10), Argazkia, irudia eta komunikazioa (%10) eta Proiektu Pedagogikoaren elaborazioa (%20).

Ikasgaia gainditu ahal izateko 10etik 5eko kalifikazio minimoa beharrezkoa izango da eremu bakoitzean: Ikus-entzunezko eta Plastikaren Hizkuntzaren eremua, alde batetik, eta Musika Mintzairari dagokiona, bestetik.

Ez ohiko deialdian ohikoan gainditu ez dituen frogak soilik egin beharko ditu ikasleak.

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea. Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikulua arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

- AGIRRE, I. (2000). Teorías y prácticas de la Educación Artística. Ideas para una revisión pragmática de la experiencia estética. Pamplona. Universidad Pública de Navarra.
- BLASER, A., FROSETH, J.O. y WEIKART, P. (2001): *Música y movimiento. Actividades rítmicas en el aula*. Biblioteca de Eufonía 164. Barcelona: Graó.
- CALOFRÉ MORA, E. y F. (1993): *Lenguaje Musical 1 y 2*. Barcelona: Boileau.
- CASTILLO, Ana María. (1996). Unidades didácticas para Educación Plástica y Visual. Madrid. La Muralla. S.A.
- EISNER, Elliot W. (2004): *El arte y la creación de la mente*. Barcelona: Paidós.
- EISNER, Elliot W. (1995). Educar la visión artística. Barcelona. Paidós.
- FONTAL MERILLAS, Olaia, (2015) Educación de las Artes Visuales y Plásticas en Educación Primaria. Ed. Paraninfo.
- HERNANDEZ, Manuel (2000): *Educación artística y arte infantil*. Madrid: Ediciones Fundamentos.
- HERRERA, Lluís M., y MOLAS, Santiago (2000): *Música de hoy para la escuela de hoy*. Biblioteca de Eufonía 150. Barcelona: Graó.
- KHOL, Mary Ann (2010). *Creación Artística en Primaria*. Madrid: Narcea.
- MARÍN, Ricardo (2003): *Didáctica de la Educación Artística para Primaria*. Madrid: Ediciones Pearson.
- MOLINA, Emilio (1994): *La improvisación musical en el Lenguaje Musical 1, 1ª y 1B*. Madrid: Ediciones Real Musical.
- MOLINA, Emilio (1994): *La improvisación musical en el Lenguaje Musical 2, 2A y 2B*. Madrid: Ediciones Real Musical.
- MÜLLER G, Ángel y MORENO, Leonor V. (2000): *La Canción y Los Instrumentos*. Sevilla: Mad, S.L.
- MUÑOZ, Manuel (1998): *El teatro, programación y ejercicios*. Madrid: Editorial Escuela Española.
- PALACIOS, F. y RIVEIRO, L. (1990): *Artilugios e instrumentos para hacer música*. Madrid: Ediciones musicales Opera tres.
- PARINI, Pino (2002): *Los recorridos de la mirada*. Barcelona: Editorial Paidós.
- READ, Herbert (1977): *Educación por el arte*. Buenos Aires: Ediciones Paidós.
- SALAS, Antonio (2011): *Teatro escolar*. Madrid: Editorial CCS.
- TEJERINA, Isabel (1994): *Dramatización y teatro infantil*. Madrid: Siglo Veintiuno de España Editores, S.A.
- ZAMACOIS, J. (1976): *Teoría de la música. Libro I*. Barcelona: Ediciones Labor.S.A.
- ZAMACOIS, J. (1977): *Teoría de la música. Libro II*. Barcelona: Ediciones Labor.S.A.
- ZIPILIVAN, Alicia (1992): *Recursos para la educación rítmica en el primer ciclo de la escuela primaria*. Madrid: Ediciones Real Musical.